## 2019. urteko araudia

# XLI. LEITZAKO HERRI KROSA.

Lasterketa araudia:

1- AURRERA K.E.ak antolatuta eta Leitzako Udaletxea eta komertzioen laguntzarekin, 2018ko apirilaren 21an, larunbata, "XLI. LEITZAKO HERRI KROSA" ospatuko da.

2- Dagokion kategorian edonork parte hartu dezake. **KATEGORIAK (jaiotze urtearen arabera izango dira):**
   - Benjaminak: 2010 - 2019
   - Gaztetxoak: 2003 - 2009
   - Absolutua: 1919- 2002

3- Kategori bakoitzean burutu beharreko distantziak:

| Benjaminak | Gaztetxoak | Absolutua | |
|---|---|---|---|
| 800 m | 1 itzuli: 2.250 m | 2 itzuli: | 4.500 m |
| | | 4 itzuli: | 9.000 m |

Oharra:

✓ Kategoria absolutuan bi itzuli edo lau itzuliko ibilbidea egiteko aukera izanen da. Izen emate garaian zehaztu beharko da.

4- Bi ibilbide desberdin daude, irteera eta helmuga beti PLAZAN direlarik:
   - Benjaminak: Herriko plazatik atera eta herrian zehar 800m berriz plazara itzuli arte.
   - Besteak: Herriko plazatik atera eta herrian zehar 2.250 metroko ibilbidean egin beharreko bueltak eginda, berriro plazaraino.

5- Izena-ematea egunean bertan, Aurrera K.E.an 15:30etatik 17:00etara. Inskripzio orria bete eta 15€ ordainduta (Aurrera K.E.ko kideak 10€) dortsala emanen da. Benjaminak, eta Gaztetxoak dohainik.
   Izen-ematea aurretik, www.kirolprobak.com-en 10€; 8€ Aurrera K.E. bazkideak.

6- IRTEERA ORDUTEGIA:

| | |
|---|---|
| 16.30 | Benjaminak |
| 17.00 | Gaztetxoak |
| 17.30 | Absolutua |

7- SARIAK:
   - Benjaminei dominak emanen zaizkie.
   - Trofeoak kategori bakoitzean lehenengo eta bigarren sailkatuari eta lehenengo leitzarrari (Leitzan jaioak edo erroldatuak) banatuko zaizkie.

8- Oilasko parea lortzeko aukera, izena ematen duen leitzar taldearentzat. Taldea neska eta mutilez osatua izan beharko da nahitaez (gutxienez sexu bereko bi pertsona). Taldea 6 korrikalariz osatua izanen da, horietatik 3k froga bukatu beharko dute eta beste 3k froga ondorengo denboren azpitik egin:
   - GIZONEZKOEK: 48 min (9 km egin dituztenek) 24 min (4,5 km egin dituztenek).
   - EMAKUMEZKOEK: 56 min (9 km egin dituztenek) 28 min (4,5 km egin dituztenek).

9- Sari banaketaren aurretik arratsaldekoa karrapean.

10- Dutxa zerbitzua herriko kiroldegian.

11- Oinarrizko osasun arreta SAMUR elkarteak eskainiko du.

12- Lasterketaren kontrolaz Kirolprobak arduratuko da.

13- Lasterketan zehar gomendatzen diren segurtasun neurriei buruzko agindu guztiak betetzea eskatzen diete antolatzaileek parte hartzaile guztiei.

14- Parte hartzaileek lasterketan zehar jasan ditzaketen dena delako kalte-galeraren ondoriozko erantzukizun orotatik libre utziko dituzte probaren antolatzaileak, ez baldin bada horien zabarkeria edo doloagatik.

15- Korrikalariei mediku-azterketa egitea gomendatzen diegu.

16- Proba honek maila fisiko egoki bat eskatzen du.